

• IRITZIAREN LEIHOA •

Joxemari Agirre

EAJKO KIDEA

Hirukoa eta pipiak

Hilabete luze igaro da Foru eta Udal hauteskundeak burutu zirenetik. Udal gobernuak osatzen ari dira eta Bizkaian eta Gipuzkoan ahaldun nagusiak hautatu berriak ditugu. Gipuzkoan gertatua aipatu nahiko nuke ondorengo lerroetan bereziki.

Hirukoak (EAJ-EA eta EB-Aralar) aise estaltzen zuen gehiengoa, 51tik 29 eserleku lortu zituen, beraz, aritmetikak laguntzen zion ahaldun nagusia aukeratzeko garaian. Gainera, Jaurlaritzan parte hartzen duten kideak izanik eta hirukoak markatzen duen ildo beretik ibiltzea erraza izango zela uste genuen askok, baina zoritxarrez ez da hain erraza izan. Uztailaren 6an gertatutakoa ikustea aski esanguratsua deritzot. Pasiloetako tratuak eta eskaintzak dira horren lekuko.

Markel Olanok, ahaldun nagusi aukeratu berriak, aspaldi adierazi zuen –hauteskunde kanpainen bertan bizpahiru aldiz– zein zen bere helburua eta lehentasuna Foru Gobernua osatzerakoan: Jaurlaritzaren hirukoa gehi Aralar nahi zituela –berarekin batera– Gipuzkoako Gobernuan. Lehenik Jaurlaritzaren espazio politikoa sakondu nahi zuelako eta bigarrenik gipuzkoarren ordezkaritza, bizkarrezurra, hortik pasatzen dela uste duelako: 29 batzarkide izateak frogatzen duten moduan. Lehendakariak sarritan esan bezala bi baldintza bete behar ditu espazio politiko horrek: alde batetik, indarkeriaren



JOSEBA OLALDE

erabilpen politikoari uko egitea, eta bestetik, eusko hiritarrek haien etorkizun politikoa erabakitzeko duten gaitasuna, erabakimena onartzea eta aitortzea. Bi hesi horien artean, demokrazia zabalean jokatzuz, egin nahi du hirukoak –horretarako jaio zen– bere bide estrategikoa. Beste bide batzuk ere egon daitezke, zilegiak eta demokratikoak, baina hirukoaren bideari irizten genion –eta irizten diogu– egokiena geure herriaren nortasuna eta izaera zaintzeko. Nola ez bakegintzarako eta normalizaziorako.

Eta hemen dator galdera. Hirukoaren bertutez konbentzituta baldin badaude kide guztiak eta Gipuzkoan hori gauzatzeko eragozpen aritmetikorik izan gabe, zergatik kostatu da hainbeste –pasilo eta tratu– aurrera ateratzea edo errepikatzea? Une batzuetan banantzeko zorian egon baita. Bada, seguru asko hirukoa osatzen duten kide guztien konbentzimendu maila ezberdina delako eta zenbaiten lehentasuna beste aukera batzuetan jarrita dagoelako. Konbentzimendu gutxi eta sinesmen gutxi badaukazu, bidean sortzen diren tentazioetan –negoziatio-negoziotan– erortzeko arriskua daukazu. Eta hori gertatu dela uste dut Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Aurrera begira atera bitza bakoitzak bere ondorioak. Idealismo pixka bat mesedez, bestela pipiak jo dezake hirukoaren ardatza.

Horren zain asko daude eta. ■

«
**Hirukoaren bertutez
 konbentzituta baldin
 badaude kide guztiak eta
 Gipuzkoan hori gauzatzeko
 eragozpen aritmetikorik
 izan gabe, zergatik kostatu
 da hainbeste aurrera
 ateratzea edo errepikatzea?**
 »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Gaude. Eguzkiak gehiegi berotzen ez bagaitu ere udaren arrastoak inguratzen gaitu. Belardietan lehen sailak lehortzeke, baratzek kolorez eta arbolak fruitu bete. Karreristak eta estropalariak neguko lanak erakusgai eta gu haien lehien begirale. Tourra Britainian eta Flandrian dabil Frantziara bidean. Dopinaren mamua estali ezinik, txirrindulariek agiri moral bat sinatu behar izan dute antolatzaileen lasaigarri korrituko badute, jango badute. Mamu berak eraman du Astillero traine-rua zintzilikatzerara Revillaren espantuak erronkari, erronka-jolasa ez dela beti joko bilakatzen argi erakutsiz. Jada

Uda betean

hasiak gara *sofin* egiten. Asteburuan arraunlariak Galizian eta eguneroko siestan txirrindulariak Tourrean.

Urtero legez Pirinioetan izango gaituzte zain, aurten Zuberoan Atharratzetik Larraineko bidean. Bi estropada galduko ditugu ETB ez baita nazionala oraindik. Atzerrian bageunde bezala telefonoz bildu beharko ditugu berriak, Luesma kofradeak galarazten ez badigu behintzat uhin sabotaje bati ekinez. Izan ere, bere Madrilo kofradiako abak ez luke Altzai aurkituko ezta GPSz baliatuta ere. Kolonizatzaileak ez du kolonia ezagutzen beti, eta hori gure abantailetakoa bat dugu. Zertan eta nolatan baliatu da gure ardura. Sortze lana. ■